

...eta

# Kitto!

875 zkia.  
2014-I-24



## Lagun Taldearen saio bikoitza



**EUKi**

ARTEKARITZA

Toribio Etxebarria, 1 - behea  
943 20 42 99

**AUTOAREN ASEGURUA**  
preziorik onenean







# LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



**ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA**

**ETENGABERO ORDUTEGIA**



Doctor **Antonio Murillo**

Hezur Birsorkuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. **Lleidako Unibertsitatea eta Madril.**

Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Alfontso X.a Unibertsitatea. Madril.**

Implantologia Masterreko Irakaslea. **Lleidako Unibertsitatea.**

Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamancako Unibertsitatea.**

Unibertsitate Instituzioetako Irakasle gonbidatua.

**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.**

Doctora **Ainhoa Zulueta**

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea. Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. Leongo Unibertsitatea.**

Diplomatua Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.**

Hortz-Estetikan Diplomatua.

**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.**

Hortz-Estetikan Diplomatua.

**Autran Institutoa, Bartzelona.**

**Etengabeko Formakuntza. New York-eko Unibertsitatea.**

Oklusioan Graduondoa.

**Anibal Alonso Doktorea.**



**Astelehenetik ostiralera:**  
**8:00etatik 22:00etara**

**Zapatuetan:**  
**10:00etatik 14:00 etara**

**Eibarko Dendarien Elkarte**  
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ  
**Galdetuiguazu!**



**MUTUAK ETA ASEGUURAK**

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGON/STONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADI...

**Galdetuiguazu!**



**IRAZABAL**

clínica dental

**FINANTZIAZIO BEREZIA**

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziario aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com



## ASTEAN ESANAK

"Garenak izatea bizitza guztiko borroka latza dugu gizakumeok. Nahiago dugu erositako zorientxoa doan bihotzean dugun zoriona baino. Independentistak gara alde batetik, baina globalizazioaren bezeroak bestetik"

(JOHAN ARTZE, IDAZLEA)

"Hildakoen azken oparia... Edo lehen mendekua... Zer izango litzateke denok Frischek legez egingo bagenu? Etxekoei, lagunei buruzko iritziak idatzi, testamentu moduko aitortpenetan, 20 urteren buruan argitaratzeko?"

(JOSE MARI PASTOR, KAZETARIA)

"Bandera guztiakin bezala, arrunt kapritxosoa izan da denbora ikurrinarekin ere. 36ko gudari batailoen ikur izan da, toaila eta sandalietan estanpatu da eta, azkenean, berau isil-gordean jarri atxilotutako gazteak torturatutako Gobernu Zibil berean balkoian paratzeko"

(IÑIGO ARANBARRI, IDAZLEA)

"Euskalki batek badu ortografia bat, formalizate bat. Hor nahaste-borraste bat dago. Hainbat eta formalago izan, erregistro formalagoa erabili beharko dugu. Ez nuke nahi identifikatu formala = batua eta informala = euskalkia. Euskalkiek biziarazten dute batua. Sekulako aberastasuna dugu, bideratzen badakigu. Ez badakigu, izan liteke aberaskeria"

(ANDRE URRTUTIA, EUSKALTZAINBURUA)

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten eusquera

KAIÑA.- Arrantzan egiteko kainabera. "Baebillen Mariño bere kaiñiorrekin ixilleko-peskan".

KAIÑADA.- Bernezurra. Gaztelera 'tibia'. "Mugan behera jausi eta kaiñadia hausu eban".

KAIÑOZULUA.- Isurbidea, ura isurtzeko zuloa. Gaztelera 'sumidero'. "Kaiñozulora jausi jakon eraztuna".

## eskutitzak

### LIZENTZIAK TRAMITATU ETA ERROPA BERRIA EROSTEKO AUKERA

Eibarko Txirrindulari Elkarteak jakinarazi nahi du laster aterako duela ekipamendu berria (negurako eta udarako arropa). Beraz, arropa eskuratu nahi duten bazkideek eguaztenetan pasa daitezke gure lokaletik (Pagaegi 3, behea), martxoaren 15era arte, 19.00etatik 20.00etara, 2014ko lizentziak tramitatzeke egunekin batera.

Bestalde, abenduaren 27an Bazkideen Batzarraren zozketatutako BTT-Conor bizikleta Andoni Retenagari tokatu bazitzaion ere, berriro itzuli dio Elkarteari eta aurrez adierazitako egunetan lizentzia berrizatutako duten bazkideen artean zozketatuko dugu.

**EIBARKO TXIRRINDULARI ELKARTEA**



Euskara Elkarteak

**ARGITARATZAILERA:** ...eta kitto! Euskara Elkarteak. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar

**TELEFONOAK:** 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.

**Astekararen E-MAILak:** erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /

publizitatea@etakitto.com **Elkartearen E-MAILak:** elkarte@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:** Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez,

Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERA:** Koldo Mitxelena.

**ERREDAKZIO-BURUA:** Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.

**ARGAZKI ARLOA:** Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.

**PUBLIZITATEA:** Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIAK:** Leire Iturbe

**BANAKETA-ARDURADUNA:** Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.050 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



**EIBARKO  
UDALA**



**GIPUZKOAKO  
FORU  
ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDETZA)**

*Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak diruz lagundutako aldizkaria*

## Berreibar Kulturala martxa betian

Astelehenian Berreibar Kulturala, M-etxea kolektibuen eskutik sortutako ekimena, presentau eben Txontan. Eibarko ondare industrial berpizteko proiektu modura jaixo zanak pauso bat aurrera emon dau eta ekimenak garatu nahi dittuenen premiñeri egokitutako lantokiak sortzeko biharriari ekin detsa. Egunotan Erb Mon Brasilgo artistiak Harkaitz Canoren testuekin muralak margotzen dihardu. Auzuan zihar sakabanatutako hamabi

muralak ipoin modukua kontauko dabela aurreratu dabe: "Jendiak hórretxek irakortzeko atxekixarekin auzua ezagutzera bultzatu nahi dogu. Horrekin batera, literatura modu diferentian irakorri eta gozatzeko aukeria eskinduko detsagu jendiari".

Proiektuaren harira beste jarduera batzuk preparau dittue. Lehelengua datorren asteko eguenian egingo da, 18.30xetan Portalean: "Com un gegant invisible" (doku-



Erb Mon artistak muralak margotzen dihardu egunotan. SILBIA HERNANDEZ

mentala) eta "Kea" (laburmetrajia) proiektuak ditue eta, jarraixan, "Lanaren aztarna

ondare denean" hitzaldia emongo dabe Tximini Kolektibokuak.



Goirizelaia eta Uriarte IK4-Teknikerreko ordezkariekin. SILBIA H.

## UPV/EHU Ikasgelaren presentaziñua

Cristina Uriarte Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuak, Iñaki Goirizelaia EHU-ko errektoriak eta Alejandro Bengoa IK4-Teknikerreko zuzendari nagusixak UPV/EHU Ikasgela aurkeztu eben aurreko barixakuan. Ekitaldixan IK4-Teknikerrek eta Euskal Herriko Unibertsitateak alkarren arteko lankidetzara sustatzeko hitzarmena siñatu eben. Ikasgela IK4-Teknikerren dago, Azitaingo industrialdian eta, presentaziñuan esan ebenez, "ikerketia zein teknologixa arluetan diharduenak, baita uni-

bersidade kanpokuak be, ikaskuntzarako, irakaskuntza eta ikerketia bultzatzeko eta UPV/EHUren bibliografixa-baliabidietarako eta formatu elektronikoko informaziñorako sarbidia eukitzeko gunia izan deixen pentsauta dago". Eki-menak oso harrera ona izan dau. Izan be, gaur egun 26 doktoregaik dihardue doktore-texisan biharrian IK4-Teknikerreko instalaziñuetan eta, euretako baten berbetan, "Ikasgelari esker, IK4-Teknikerretik mugidu barik, biharretik urten eta zuzenian unibersidadera 'jua-teko' aukeria dakagu".

## Aurrekonturako proposamenak

Bilduk 2014rako udal aurrekontuan aldaketa sakonak egittia proposau dau: "Diru-sarrerak 990.000 eurotan igotzia eta, jada aurrekontuan jasota daguezen partidetan 727.428 euroko aldaketekin, guztira 1.717.428 euroko aldaketak egittia proposatzen dogu eta, holan, bestiak beste Errebalgo proiektuarendako, enplegua sortzeko, arlo sozialian erabiltzeko eta energia aurretzeko inbersiñuak egitteko aukeria izango genduke".

Udal gobernuaren proposamena oin momentuan dagu-zen erronkeri aurre egiñ ahal izateko egokixa ez dala erizten detse: "Ospital barrixa egitteko obria aurtan hasiko zala behiñ eta barriz errepi-katu dabe, baiña ez dabe sartu 790.000 euroko lizentzia. Bestalde, Foru Funtseko partidia 200.000 eurotan igotzia proposatzen dogu. Izan be, Diputaziñuak gure herrixandako 15.680.376 euroko diru-sarrerria aurreikusi dau, baiña udal gobernuak 700.000 euro gitxiago (14.987.331 euro) baiño ez dittu aurreikusi. Partida bi hórretxekin aurrekontua 990.000 eurotan igotzia guztiz



arrazoizkua dala uste dogu". Txomoko parkerako aurreikusittako kopurua 200.000 eurotan murriztia; Eibar foball taldiari emondakua 37.500 eurotan murriztia; gobernu organuetako gastua erdira bajatzia eta, horri esker, 490.000 euro aurreztia osatzen dabe aldaketa-proposamen zerrendia. Agerraldixan esan ebenez, "Eibarrek dittuan erronkeri aurre egitteko beste aurrekontu bat bihar dogu eta, horregaittik, hamabost zuzenketara partzial ezeze, osoko zuzenketia be aurkeztu detsagu presupuestuari". Gauzak holan, "aurkeztutakua atzera bota eta, batzorderik batzorde, beste aurrekontu barrixa preparatzia" eskatzen detse udal gobernuari.



## Turismua eta herri kirolak Fitur azokan

Egunotan Debarreneneko eskintza turistikua eta Euskal Kostaldeko Geoparkia ezagutzera emoten dihardue Madrillen, eguaztenaz geroztik eta domekara bittartian martxan egongo dan Fitur turismo azokan. Eskualdiak bisitan datozenendako dittuan aukerak eta bes-telakuak azaltziarekin batera, aurtengo ferixan herri-kirolak bertatik bertara ezagutzeko aukeria daka jendiak. Izan be, Euskadiko standian hainbat jarduera zuzenian presentatzeko "plaza" modukua preparau dabe eta, asteburuan, 16 aldiz Euskadiko txapel-duna izan dan Mallabiko Zelai harrijasotzai-



lirik, beste bi gaztek lagunduta, harri-jasotzen eta beste herri kirol batzuk erakusten jardungo dabe.

## Latinamerikako musikaren omenezko txotxa



Gaur zabalduko dabe txotxa Irukin. SILBIA HERNANDEZ

Iruki sagardotegixan gaur egingo daben omenaldi-txotxak erantzun paregabia euki dau, 170 lagunek bertan afaltzeko izena emon eta gehixagorendako toki barik geratu dira-eta. Afaltzen hasi baiño lehen, berotzen juateko, herriko erdialdian trikitilarixak kalejiran ibilliko dira 19.00etatik aurrera. 20.00etan, barriz, sagardo dastaketia hasiko da sagardotegixan, Saizar sagardotegiko ordezkariaren eskutik. Afarixa 21.00ak aldera hasiko da eta, afalostian, aurtengo omenduak diran Trio Medianoche eta Voces y Cuerdas taldiak kantuan jardungo dabe.

## autuan

### TOPAKETA IREKIXA ALDATZEN

Aldatze ikastetxiak urtarrillaren 31 rako topaketa antolatu dau Bakiaren eta Indarkerixa Bariko Eskola Egunaren harira. Ekitaldixa 18.00etan hasiko da ikastetxian bertan (txokuan), eta juan nahi daben guztiendako atiak zabalik egongo dirala azaldu dabe antolatzaillirik.

### BERRIKETAN

Udaleko inmigraziño alorrek Berriketan programia daka martxan, bertakxak eta atzerritarrak taldeka batu eta euren artian mintzapraktikia eta alkar-ezagutza lantzeko aukeria eskintzeko. Programan interesa dakanarendako informaziñua: Portalean, 943708440 telefono zenbakixan edo inmigrazioa@eibar.net helbidian.

### UR SOROSPEN IKASTARUA

Gurutze Gorrixak Ur Sorospen ikastarua antolatu dau. Otsaillaren 8xan hasi eta martxuaren 16xan amaittuko da eta klasiak zapatu eta domeketan emongo ditte, Ipurua kiroldegixan (09.30xetatik 16.00etara). Informaziñorako: 943-176248 telefonora deittu edo Eibar-Ermuko Gurutze Gorriara juan.

## KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOA

30 urte  
Eibarko  
bizilagun-  
erkidegoekin  
konprometitua



Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe



ESPERIENTZIAK  
EMATEN DUEN KONFIANTZA

www.euki.com

Tel: 943 200 358

## Helbidea

URKIZU PASEALEKUA, 13  
Orbeako dorreetako  
1. solairua  
☎ 943 12 02 00 ☎ Fax: 943 12 02 04



CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

- |                           |                                      |
|---------------------------|--------------------------------------|
| 1 Kardiologia             | 11 Barne Medikuntza                  |
| 2 Zirugia                 | 12 Radiologia                        |
| 3 Dermatologia            | 13 Urologia                          |
| 4 Dietetika eta Nutrizioa | 14 Traumatologia                     |
| 5 Anlisi Klinikoak        | 15 Koloproktologia                   |
| 6 Ortodontzia             | 16 Erizaintza                        |
| 7 Otorrinolaringologia    | 17 Zoru pelbikoaren errehabilitazioa |
| 8 Pediatria               | 18 Foto-depilazio Unitatea           |
| 9 Psikiatria              |                                      |
| 10 Neurologia (BERRIA)    |                                      |

asteko  
27.513  
datua

biztanle dittu Eibarrek,  
hill honetako datuen  
arabera: 14.154 andrak  
dira eta 13.359 gizonak;  
eta 67 herrialdeetatik  
gurera etorritako  
azterritarrak 1.902 dira.

## Enpresen dibersifikaziñorako programia

Debegesak atzera be Ostiralak Debegesan programiari ekin detsa eta, horren barruan, Learn Startup proiektua abiarazi dabe, enpresen dibersifikaziñua sustatzeko asmoz. Garapen agentziak eta Mondragon Unibersidadiak alkarlanian sustatutako proiektu pilotuak, trebakuntza-jarduera baten bittartez, doan trebatzeko aukeria emongo detse parte hartzera animatzen diran enpresa txiki eta ertaiñeri (gehixen jota, seik hartu leikie parte). Trebakuntza programia lau orduko iraupena izango daben sei saiok osatuko dabe eta urtarillaren 31an hasiko da, 09.00etatik 13.00era, Debegesaren egoitzan (Azittaingo industrialdian) eta parte-hartza duan izango da. Informaziño gehixago [www.debegesa.com](http://www.debegesa.com) webgunian, Ostiralak Debegesan atalian begiratu leike.



Sei enpresak hartu leikie parte trebakuntza saiuan.

## Ogi dastaketa saiua otsaillaren 11n

...eta kitto! Euskara Elkartiak antolatuta, ogixa dastaketezko saiua egingo da Urkizuko bere lokaletan. Otsaillaren 11n, martitzenian, arratsaldeko 19.00etan egingo dan saio hori Artepan-eko Txema Pascualek gidatuko dau, Juantxo Aranburu eibartarraren laguntzarekin. Parte hartu nahi dabenak izena emon biharko dau otsaillaren 7xa baiño lehen eta plaza mugatuak dagoz. Bakotxak 5 euro ordaindu biharko dittu (...eta kitto!-ko bazkidien kasuan, 4'50).



## Saharako errefuxiatueri laguntzen

Tindoufeko (Aljeria) kanpamenduetan bizi diran errefuxiatueri laguntzeko Sahararen aldeko 10. Euskal Karabania Piztu Itxaropena antolatu dabe SEADen Aldeko "Otsailak 27" euskal alkartien koordinadorakuak. Aurreko urtietan egindakuaren bitetik, egoera larrixan bizi diran errefuxiatuendako premiñazkuak diran elikagaixak (arroza, pasta, azukria, lekaliak, sardiñak eta atuna konserban...) eta konpresak batuko dittue herririk herri, ohiko tokixetan (den-

da, botika eta bestelako bilketa puntuetan). Bestalde, batutakuak kanpamentuetara eruango daben karabania osatzeko bigarren eskuko kamioiak erosi nahi dittue. Dirua emonda lagundu nahi dabenendako, Laboral Kutxako kontua 3035 0080 94 0800054177 da. Arduradunekin kontaktuan ipiñi nahi dabenak koordinadora27febrero@gmail.com helbidera idazteko aukeria daka edo, bestela, 619029648 telefono zenbakira deittu.

w w w . a l d a t z e . o r g

aldatze

III. ALDATZE  
DANOK GARA  
otsaillaren 1ean



## BERBETAN, MINTZAPRAKTIKA EGITASMOAK

# Euskera gozatzuz erabiltzeko aukera

**H**amabi urte dira ...eta kitto! Euskara Elkarteak Berbetan mintzapraktika egitasmoa martxan jarri zuenetik. Euskara ikasleen aldetik euskera praktikatzeko zegoen eskaria ikusirik erabaki zuten egitasmoa martxan jartzea.

Ikasturte hasierarekin batera ekin zion ...eta kitto! Euskara Elkarteak informazio-kanpainari eta horrek ere ekarri du fruiturik. Talde kopurua ia bizkoiztu egin da eta parte hartzaile kopurua ehun lagunekoa da gaur egun.

Eibarren ez eze, Euskal Herria osoan geroz eta indar handiagoa hartzen ari den mugimendua da mintzapraktika egitasmoena; ia sei mila berbalagunek dihardute mintzapraktika taldeetan parte hartzen. Eraginkorra den seinale. Izan ere, berbalagunek behin eta berriro errepikatzen duten esaldia da, talde horiei esker gehiago erabiltzen dutela euskera, lotsa



*Berbetan-eko partaideak iaz Zumaiaiko Balenciaga Museora egindako bisitaldian.*

gainditu, konfiantza hartu eta euren euskera maila hobetzen dutela.

## Astean behin ordubete

Hori bezain erraza. Mintzapraktika egitasmoak ez du besterik eskatzen. Denbora apur bat eta gogoia. Taldeak astean behin elkartzen dira, nahi duten leku eta orduan, eta, akademikotasunetik haratago, modu natural eta informalean, euskeraz berba egiten dute. Aisiarekin lotzeko, irteerak egiten dira urtean birritan eta hileroko taldeen arteko hartuemana handitzeko 'Tribiala' jokoa ere egiten da. Euskera ondo pasatzearekin oso lotuta

dagoela erakusten du Berbetan-en parte hartzaiek.

## Guraso eta dendariak

Orain dela urte batzuk gurasoei eta dendariei zuzendutako azpiatalak sortu ziren Berbetan-en barruan. Gurasoak, beste askotan moduan, eredu direlako seme-alabentzako euskeraren aldeko jarrerara lantzerako orduan; eta, dendarien kasuan, bezeroari eurekin euskera egiteko aukera emanez, kalidade plus-a eskainiko lukeelako. Taldean parte hartzea doan da eta, izena ematea nahi izanez gero, ...eta kitto!-ra deitu (943200918).

## Belen

Belen euskara ikaslea da eta aurten eman du izena lehenengoz mintzapraktika egitasmoan. Bi taldetan dihardu, astean bi egunez: bi ordu eta erdi guztira. Orain dela hiru urte hasi zen euskara ikasten, zerotik hasi ere: *"Barakaldokoa naiz eta nire inguruan ez dut sekula euskaldunik izan. Euskaltegi batetik bestera ibili naiz, baina orain premiarik handiena, erabileran nuen. Berbetan-ek eman dit horretarako aukera ezin hobea"*. Egitasmoak zer eman dion galdetzerakoan, argi du Belenek: *"Euskera gozatzuz ikasteko aukera eskaini dit Berbetan-ek. Eta, berba egiterako orduan, oraindik ere sarritan lotsa ematen badit ere, naturaltasuna, konfiantza eta arintasuna lortzen dihardut"*. Jendea izena ematera animatzen du Belenek: *"Hizkuntza bat zertarako ikasi, gero erabiltzen ez badugu? Euskal Herrian bizi gara eta euskera da gure hizkuntza, eta denon artean eutsi behar diogu"*.

## parte-hartzaileen iritzia

### Ane

Ane euskalduna da eta berak ere aurten eman du lehenengo aldiz izena Berbetan-en: *"Aspalditik neukan gogoia. Azken finean, euskararen erabilera sustatzeagatik eman nuen izena; jakin askok dakigulako, baina erabilera beste kontu bat da"*. Taldean denbora gutxi daraman arren, aldaketarik igarri du taldeko euskaldun berrien artean: *"Lotsa galtzen doaz, belarria egiten dute, konfiantza hartu, berba edo esaera berriak ikasi... eurak asko eskertzen dute"*. Anek ere zalantza izpirik gabe animatuko luke jendea parte hartzera: *"Ez dakitenek ikasi eta dakigunok berba egin behar dugu. Ez dago besterik. Eta asko jakin ez arren edo ikasten egon arren, berba egiteko prest dagoenari lagundu egin behar diogu, denon artean euskera geroz eta gehiago erabiltzeko"*.



Hogei urtetik gora dira Lagun Taldekuak urtarrilleko ikuskizuna eskintzen hasi ziranetik. Funziñuak halako arrakastia izan zeban, azken lau urtiotan bi zapatutan taularatzen dabela. Eta badira hirugarren bat zergaitik egitten ez daben aurpegiatzen detsena. Eurendako urteko ekitaldi garrantzitsuena bihurtu dabenak antzerki gero eta osatuagua aurkezten dabe jendaurrian, ahalegin guztia ipiñitta prestatutako gidoiari erantzuteko. Reme Santos taldeko arduradunak eta Iker Lasuen monitorietako batek guztien artian dotoretzen daben biharraren barri emon deskue. Gure herriko Gitxitu Intelektualen aldeko Agrupaziñuan daguazenekin biharra egittiak zenbateraiño aberasten detsen kontau deskue: horren probia da sartu ziranetik iñoiz ez jakuela burutik pasau be taldia lagatzia, denporiarekin larri ibillitta be.

**K**atekista batzuk emon zeben lehelengo pausua; eta euren pausuak jarraitu zittuen gero aisialdi munduaren bueltan zebizen gazte batzuk. Holan jua zan Lagun Taldea indarra hartzen. Hortik, alkarren arteko lan horretatik, piztu zan be urteroko jaialdixa: bat amaittu eta hurrengo urterako zenbat egun geratzen diran kontatzen has-

ten diran horretakuak dira bertan parte hartzen dabenak. Azken lau urtiotan moduan, jendiaren eskaerari erantzunaz, bittan eskinduko dabe jaialdixa: bixar lehelengua eta datorren zapatuan, otsaillaren 1ian, bigarrena. Bixak be, Unibersidade Laboralian eta 17.30xetan. Aurten bi eurotan ipiñi dabe prezia: "Gutxituen amantzat hasi giñan ekitaldixa egitten: kursua amaitzeko modua zan. Kobrau be, ez genduan kobratzen. Gero, urte guzti hauetan, euro batian saldu doguz sarrerok; batez be, zenbat jende sartzen zan kontrolatzeko, aforua dala-eta", gogoratzen dau hasieratik taldean diharduan Reme Santosek. "Azken urtiotan euro batekuari nahiko ridikulua erizten zetsan jendiak eta oinguan prezia bikoiztia erabagi dogu", diño Iker Lasuen monitoriak.

#### 27 artista aurten

Aurtengo ikuskizunian Lagun Taldekuak "¿Quien ha si-

do?" lana errepresentauko dabe, gauzak emoten dabena ez diran kasu misteriosuan. Aktuaziño musikatuk jantziko dabe intriga eta hor Lagun Taldeko 27 kidek euren onena emongo dabe. "Aukeria besterik ez dabe eskatzen. Luzitzeko motiborik eskindu ezker, bikiñ erantzuten dabe... bestiok baiño hobeto askotan", diñue taldeko arduradunak. Gehitzen dabe baita: "Gauza dira koreografiatako osaketian laguntzeko, gutako askok ez dake dantzarako euren erritmorik...".

Ekaiñian-uztaillian hasten dira hurrengo urterako pres-taketa-lanekin eta "irailletik aurrera monotema bihurtzen

da". Orditik aurrera astero hiru ordu eskintzen detse ekitaldixa prestatziari eta, gabonetatik aurrera, prestakizunetan sakondu eta lana bikoizten dabe. Hiru lagunek dake programiaren arduria, inguru-

## Lagun Taldearen jaialdixa 25ian eta otsaillaren 1ian



**Iker Lasuen monitoriak hamabost urte daroiaz Lagun Taldearekin; Reme Santos hasieratik dago buru-belarri sartuta.**



ko monitoriak laguntzaille: "21 monitore izango dira oin-guan. Eta minusbaliatu artistak be aurreko urtietan baiño gehiago izango dira, 27 guztira, pisuan eurak bakarrik bizi diranak tartian. Urtian zihar hamabost lagun inguru mugitzen bagara taldiaren bueltan, jaialdirako kopuru hori bikoiztu egitten da. Jantzixetarako bakarrik zortzi lagun etortzen jakuz laguntzera, lau jaialdi bakotxian", dioskue Lagun Taldeak.

Ordu eta erdiren bueltan iraungo dau funziñuak, "18 aktuaziño musikalekin, danak be hari eruale bati jarraituta.

Sasoi bateko sketch-ak tokixa egin detse gaur egungo koreografixa landuagueri, gero eta antzerkixago dan ikuskizunian". Zapatu bixak egun haundixak badira be danentzat, bigarrenak daka premixo haundixena: "Hor afarixa egitten dogu, aurreko neke guztietatik errekuetatzeko".

#### Jaialdixa baiño gehixago

Lagun Taldian, dana dala, urte osoko lana izaten da, astero hiru egunetan (astelehen, eguazten eta barixakuetan, 18.00etatik 19.00etara) gutxitu intelektualekin lanian: "Barixakuetan gehixago zentratzen ga-

ra eskulan eta jokuetan. Horretarako, baiña, baktaxaren ahalmen eta adinari arabera antolatzen dittugu mahaixak", diñue Lasuenek eta Santosek. Kurso hasierian eta amaierian urteeria be egitten dabe, "neskamutil eta euren amekin". Amekin bakarrik? Bai, amak diralako arduratu eta gehixen inplikatzan diranak. "Beti izan da holan. Olitera juaten gara, ikutu kulturala dakan txanguan, eta bestian Galdonako kanpiñera. Horkua ludiko-festibua izaten da, gin-



Intrigak jantziko dau aurtengo programaziñua.

kana tartian". Hortik aparte, Aratostieri be leial erantzuten detse, kaldereruen martxan, eta baita beste jai-xetan be.

Argatxako Jardinetan dake zentrua, "Udalak lagatako lokal batian", eta edozein hartzeko prest dagoz: "Laguntzeko bada behintzat; arduratsua izatia da eskatzen dogun bakarra". Gizartiar euren gerturatzia eskatuko zetsen: "Asko aurreratu da alor horretan, naturaltasun haundixagoz jokatzen dalako oiñ. Integraziñuan asko aurreratu dogu, gitxittasun horrekin be gauza asko egitteko ahalmena dakela errekonozidu dogulako: badago jendia Teknikerren biharrian...".



18 aktuaziño musikalekin prestau dittue aurtengo jaialdirako. Izango da girua, bai, Unibersidadian.



## Jorge Imaz Bolinaga

### KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOA

Bidebarrieta, 6 - 1. ezk.  
Tlf. 943 53 03 03  
[imazjorge@hotmail.com](mailto:imazjorge@hotmail.com)

## ITZULPEN

**ERA GUZTIETAKO TESTUAK ITZULTZEN DITUGU,**  
euskaratik gaztelerara,  
gazteleratik euskarara,  
eta ingelesetik euskarara.

## ZERBITZUA

[elkartea@etakitto.com](mailto:elkartea@etakitto.com)



Funeraria-Ehortzetxe  
**Mugica**

EIBAR	ELGOIBAR
 <p><b>Beilatokia</b> Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	 <p><b>Beilatokia:</b> SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p><b>Bulegoa Eibarko erdialdean</b></p>  <p><b>24 orduko zerbitzu iraunkorra</b></p> <p>☎ <b>943 20 19 51</b>   <a href="http://www.funeuskadi.com">www.funeuskadi.com</a></p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	



**Haur Hezkuntza Magisteritza eta Psikopedagogia ikasketak amaitu berri, maleta egin eta Perurako hegazkina hartu zuen iazko irailean 24 urteko gazte eibartarrak. Nerea Olanok hiru hilabete eman ditu Piscon, Tupac Amaru Incaren Fe y Alegria ikastetxeko umeekin beharrian eta, handik bueltan, "berriz errepikatuko moduko" esperientzia nolakoa izan den kontatu digu.**

**- Nolatan animatu zinen Perura joaten?**

Aldatzen ikasitakoa naiz eta Egoazia GKE-n urtebetez bolondres modura jardundakoa. Ondo ezagutzen dut Egoaziak han garatzen diharduen proiektua eta, ikasketak amaituta laguntzera joateko aukera ikusi eta, Udalaren beka eman zidatenez, hara joan nintzen..

**- Etxetik irten aurretik izan zenezakeen ideia eta behin hara ailegatuta aurkituko zenuenaren artean alde handia ikusi zenuen?**

Egia esateko, joan aurretik ez nion buruari buelta larregirik eman, argazki batzuk-eta begiratu nituen, baina hortik kanpora aurriritzi gehiegi barik joan nintzen.

**- Nolakoa izan da han egin duzun beharra? Zertan jardun behar izan duzu?**

Egoaziak eta Aldatzek bost urte daramatzate Perun hezkuntzaren inguruko proiektua elkarlanean garatzen, Udalaren laguntzari esker. Nik 380 bat ume hartzen dituen eskola horretan jardun dut, premia bereziak dauzkaten lau eta zazpi urte bitarteko umei laguntzen eta eurentzat gela prestatzen. Izan ere, ni joan aurretik premia bereziko umeentzat gela eta

materiala egon bazeuden, baina ez zuten inor hori martxan ipintzeko eta ni horretaz arduratu naiz, besteak beste. Horrekin batera, arreta berezia behar duten umei psikomotrizitate klaseak eman dizkiet eta irakarle-laguntzailea ere izan naiz.

**- Ume horien egoera asko aldatzen da hemen bizi edo Peru moduko herrialdean bizi?**

Oso alde handia dago, ikaragarria. Berezko premia bereziei beste faktore batzuk gehitu behar zaizkio: ume horien etxeetan bizi den egoera latza izaten da sarritan, gurasoek ordu mordo ematen dituzte etxetik kanpora beharrian, gizartean bihurtzea handia dago... Bereziki gogorra egin zitzaizkidan egunero negarrez egoten ziren ume biren kasua, baina gurasoek etxean zuten egoera kontatzean, orduan ulertu nuen zergatik egiten zuten negar horrela.

**- Nolakoa izan da esperientzia?**

Oso polita, aukera izanez gero zalantza barik errepikatuko nuke. Pentsa, handik bueltatu eta berehala beste beka baterako eskaera egin dut. Etorri aurretik han beharrian jarduteko eskaintza ere egin zidaten eta, hemen luzaroan ezer aurkitu ezean, batek daki, baliteke etorkizunean hara bueltatzea.



Nerea Olano  
(PERU-N KOOPERANTEA)

**"Bihar bertan errepikatuko nuke esperientzia"**

pr publi resa

- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta  
ENPRESETAKO OPARIAK

Armagin 3 - behea

☎ eta faxa: 943 70 14 97

Publi.resa@euskalnet.net

Aire berriak!  
Estaziño, 4  
943 254776

Khôl Estilistak



## Institutuko elkartrukeko ikasleak Alemaniara bueltan

Badira zazpi urte Ignazio Zuloaga institutuaren eta Alemaniako Balingen Gymnasium ikastetxearen arteko harremana hasi zela eta, urteek aurrera egin ahala, sendotzen eta finkatzen joan da. Horregatik, jende gutxi harritu da azken egunotan Eibarko kaleetan gazte mordo batetik bestera ikusi dituenen, are gutxiago alemanieraz berba egiten zutela entzutean. Eta norbaitek astebarruan kalean pasiatzen ziharduten gazte horiek nortzuk ziren galdetuz gero, "Alemaniatik institutura bisitan etorri diren ikasleak" natural-natural erantzungo lukete askok. Izan ere, ikastetxe bien arteko elkartrukeak eskolatik kanporakoei eragiten die zuzen-zuzenean. Hasteko, elkartrukean parte hartzen duten ikasleek guraso, anai-arreba eta beste senideek bisitan etorritako ikasle atzeritarra ahalik eta erosoan egoteko ahalegin berezia egiten dute. Guraso askok erdi-txantxetan erdi-serio dioten moduan, "egun horietan beste seme-alaba bat gehiago izaten dugu etxean, horrek dakarren guztiarekin.

*Pozik egoteko ahalegintzen gara, adibidez otorduak prestatzeko orduan, ahal dela berari gustatuko zaizkionak aukeratzen-eta. Gainera kontuan izan behar da norberaren seme-alaba guk hemen hartutako ikasle horren etxean hartuko dutela, horregatik harrera ahalik egokien egiteko arreta berezia ipintzen dugu beti. Baina ia konturatu barik, gustora egiten dugu".*

### Sei egun Eibarren

Gaur etxera bueltatuko diren Alemaniako ikasleak aurreko zapatuan ailegatu ziren Eibarrera. Urtero lez, hemezortzi bat ordu autobusean bidaiatu eta jarraian, gure herrira ailegatu eta, berehala, institutuan bertan harrera egin eta ongietorria emateko tarte hartu zuten ikasle, irakasle eta guraso eibartarrek. Hortik aurrera agenda bete-betea izan dute bisitan etorritakoei zein bertakoei. Hasteko, eta asteburua tartean izanik, hemengo gazteek aisialdian egiten dituzten gauzak bertatik bertara ezagutzeko eta egiteko aukera izan zuten eta,

nola ez, Eibarko giroa ondo baino hobeto barneratzeko aukera ederto aprobetxatu zuten. Eta astebarruan, eibartarrek ikasturteko martxari jarraitu eta egunero klasera joan behar duten arren, alemaniarrek Eibar eta inguruak ezagutzeko hainbat irteera egiteko erabili dituzte ordu horiek. Eguraldi nahiko eskasa egokituta ere, bisitan etorritako 30 bat gazteek hemen igarotako sei egunetan Euskal Herriko tokirik esanguratsuenak ezagutzeko tarte hartu dute eta, besteak beste, Bilbo, Gernika, Lekeitio, Donostia eta Iruñean egon dira.

Beste urte batzuetako esperientziarekin alderatuz



**Aurreko zapatu eguerdian ailegatu ziren alemaniarrek Institutura LEIRE ITURBE**



**Azaroko lehen egunetan egon ziren eibartarrak Alemanian bisitan.**

gero, aurtengo berritasunik garrantzitsuena bisiten txandetan egon den aldaketa izan da: aurreko urteetan alemaniarrek izan dira lehenak bidaiatzen eta, haiek joan eta aste batzuetara, eibartarrak Alemaniara joaten zitzaizkion bisitan. Baina gaurkoan, agur esateko orduan egoera oso bestelakoa izango da, eibarta-

rak orain dela aste batzuk, azaroaren 3tik 8ra bitartean egon zirelako elkartruke bidaian eta, beraz, jakin badakitelako lagun berriak berriz ikusteko zain egotea, beste aukerarik ez dutela izango. Hori bai, ez da sekula agur tristerik izaten, elkartrukean parte hartzen duten ikasleek beti dioten moduan, "hizkuntza, ohiturak eta batez ere esperientzia ahaztezinak elkartrukatzea beti aberasgarria izaten delako".



**MILA ARRIETA ZUBIMENDI**  
2014ko urtarrilaren 15ean hil zen,  
70 urterekin

**Familiaren izenean, eskerrik beroena**  
gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi  
eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.



# GREMIOEN GIDA

## ANTENAK

**BALATZ** c.b.  
Instalakuntzak eta konponketak  
antena - telebista  
Bidebarrieta, 37 Tfnoa. 943 20 05 08  
balatz@euskalnet.net Faxa. 943 20 04 94

Ego Gain, 2 - Bac  
Tfnoa. 943 12 73 50  
www.trinmer.com  
**trinmer**  
TELEKOMUNIKAZIOAN  
PROFESIONALAK

## AROTZAK

**IÑAKI**  
Egurrezko mota Ateak - Tarimak  
guztietako lanak Altzariak  
Milaflores 10 Tfnoa. 943 20 35 55

**SUKALDE ALTZARIAK**  
\*  
**AROTZEGIA**  
Iparragirre Anaiak  
F. Calbetón, 4 behea Tel. 943 20 29 27  
Tailerra: Apalategi auzoa Tel. 943 12 01 92  
Mobila: 657 79 56 78

**ulmar**  
S.L.  
metalezko eraikuntzak  
aluminiozko eta PVC-ko arotzedia  
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar  
Txonta, 30 - 1. eta behea  
Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50  
ERAKUSKETA  
EIBARREN, Ur-kizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

## ELEKTRIZITATEA

943 530 356 **electricidad**  
688 674 242 **alberto**  
INSTALAZIOAK ETA  
instalaciones y mantenimiento  
MANTENIMENDUA  
WWW.ELECTRICIDADALBERTO.COM  
dasilvaalberto@hotmail.es

Ego-Gain, 9 ac. ARGIZTAPENA,  
KONPONKETAK  
ETA INSTALAZIO  
ELEKTRIKOAK  
**b**arra 677 51 24 62  
943 20 06 97

Tel. 610 532 922  
**THELECER**  
TELEKOMUNIKAZIOAK  
ELEKTRIZITATEA  
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK  
24 orduko urgentiak

## ERAIKINEN MANTENUA

**I.T.E.** INSPECCION  
TECNICA DE  
EDIFICIOS  
ERAIKINEN  
IKUSKAPEN  
TEKNIKOA **E.I.T.**  
info@ajtfoficina.com tlf. 943 20 18 30  
AJT Zihurtasuna s.l.p.  
Toribio Etxebarria, 4 behea A





# Informazio gehiagorako



943 20 67 76



## GARBIKETAK

**Limpieza Multiservicio Eibar**

Superficie mota guztietako garbiketa eta mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 254 615  
Mobila 688 609 171  
www.multiservicioeibar.com Barrena, 21 - 1. F

**TREJO GARBIKETAK S.L.**

Tel: 943-752557  
Faxa: 943-752556  
16 Postakutxatila - Soraluze

*Garbiketa eta mantenimendua*

## IGELTSEROAK

**CAMILO ALVAREZ** IGELTSEKITZA

*OROKORREAN*

- Barne erreformak (sukaldeak, bainugelak, leihoak etb.)  
- Gremioen koordinaketa

Jardiñeta, 25 - behea  
620 060 104 (Ernesto) / 600 465 789 (Fran)

**irazabal**  
Jose Maria Irazabal, S.L.

ERAIKUNTZA ETA ERREFORMAK  
IGELTSEKITZA ETA  
GREMIOEN KOORDINAKETA

*eraikuntzak erreformak igeltsekitza*

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia  
Tfnoa. 943-120108  
www.irazabal.net

## ITURGINTZA

Gasa Kalefakzioa  
Klimatizazioa  
Eguzki Energia

**Jardines Iturgintza**

Tel. 943 206 913  
615 782 638  
615 782 637  
Fax. 943 254 929

Jardiñeta, 11 B  
fontaneriajardines@euskalnet.net

**MUGICA** ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,  
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,  
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN  
ERREFORMAK ETA ABAR...

**HANGROHE** KANILEN BANATZAILEA  
ZORU ERRADIATZAILEA  
EGUZKI-ENERGIA

Egiguretarren, 18  
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

## KRISTALAK

**ACHA** Kristaldegia

TAILERRA: ERREKATXU, 3an  
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK

info@cristeriaacha.com **ERAKUSKETA**  
eta faxa: 943 203 903 Arikitzaneko Zubian

## PINTURAK

DECORACIONES  
**AIXA**  
José Luis Irionda

Pintura orokorra  
Margotutako paperak  
Zoruen kolokazioa  
PVC zoruak  
Maketak  
Alfonbrak  
Kortinak  
Etixerakoak  
Osagarriak

Tfnoa. eta Faxa.  
943 20 05 94  
T. Etxebarria, 8 - behea

**baglietto** PINTUREAK

Zoru mota guztiak  
Pinturak  
Dekorazioa

Errebal, 21 Tel/Fax: 943 20 19 22

**PINTURAS ARRATE, S.L.**

- Nexa Autocolor
- Pintura industrialia
- 3M produktuen banatzailea

MATSARIA, 34 behea - A  
parrate@terra.es  
Tel. 943 20 41 04 Faxa: 943 70 06 89

**MALVAR** PINTURAS

Sostoa, 16 ac behea  
Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900  
Mobila. 656 784 396

**VICTOR GONZALEZ FRAIZ** PINTURA OROKORREAN

BARNE eta KANPOko dekorazioa eta pintura,  
FATXADAK, PINTURA BEREZIAK,  
ENPAPELATUAK, GOTELÉ...

Bizkaia Etorbidea, 9 -ERMUA-  
696-565394 / 943-030540  
victor-fraiz@hotmail.com

## Eibarkoak Liga Adelanteko entrenatzaile eta jokalaririk onenak abenduan

Gure herriko taldearen ibilbide onaren seinale da aurten martxan ipinitako hila-beteroko sari hori abenduan Eibar F.T.-ko Gaizka Garitano entrenatzaileak (honek bigarren hilabetez jarraian) eta Jose Morales ezkerreko hegalarak irabazi izana. Saria atzo ziren jasotzekoak Ipuruako instalazioetan, entrenamenduaren amaieran. Horrez gain, Marca egunkariak ere Yuri eta Dani Garcia sartu ditu lehen itzuliko hamaikakoan. Taldeak bihar jokatuko du Montilivin, Gironako zelaian, 18.00etan.

### Abonoak egiteko aukera

Denboraldi berrirako abonoak egiteko epea zabaldu da, iazko prezio berekin, eta lanik gabe daudenak %40ko deskontua izango dute, hauek ere iaz moduan. Prezioak honakoak dira: Tribuna Nagusia eta Ipar Erdia (helduak, 297; 17tik 25 urtera arte, 179; 16 urtera arte, 132; eta jubilatua, 177); Tribuna Nagusia, Ipar Eskuma eta Ezker A (helduak, 260; 17tik 25era, 145; 16ra arte, 95; jubilatua, 127); Tribuna Gol Ekialdea eta Mendebaldea (helduak, 209;



Morales, gero eta sendoago hamaikakoan.

17tik 25era, 83; 16ra arte, 35; jubilatua, 70). Denboraldi erdirako, ekainetik aurrera, justu erdia ordaindu beharko da.

## Azken laurdenak madarikatuak bihurtu ziren saskibaloiko taldeentzat

Ruibalek ahalegin handiak egin zituen Tolosan Orbela Tabernaren aurka, baina talde bien artean dagoen aldea kaleratu zen azken unean eta eibartarrek amore eman behar izan zuten (57-49). Will Polanco izan zen saskiratzaile nagusia Ruibalen. Herriko bigarren taldeak, Katu Kalek, 26-5eko partziala hartu zuen azken laurdenean Donibasket liderraren kantuan eta ordura arteko partidu bikaina (26-31 irabazten zihoan hirugarren laurdenaren amaieran) pikutara joan zen. Igoera fasean sartzeko hurrengo hiru partiduak irabazi beharko dituzte eibartarrek, bihar Ipuruan Zarautz Sharks-en kontra jokatuko dutenengandik hasita.



## Gipuzkoa Basket ikusteko aukera Benicobarekin

Benicoba dendakoek aldatu egin dute Gipuzkoa Basket-en partiduak ikusteko zozketa. Horrela, GBC-ren partiduak ikusteko gogoak duten herriko kirol ekipoetako neska-mutilen taldeak J. Gisasola kaleko Benicoba dendatik pasa daitezke eta eurak ahaleginduko dira sarrerak lortzen. Hurrengo aukera otsailaren 15eko Valentzia Basket-en kontrako partidua izango da eta, horretarako, 10erako gorde beharko dituzte sarrerok. Argazkian, Real Madrilaren aurkako partidua ikusteko aukera izan zuten Eibar Eskubaloiko jubenilen ekipoko taldea.



Alex Blanco (3), Asier Azpiri (1) eta Christian Fernandez (2), goleatzaile izan ziren azken asteburuan.

## Sukiaren garaipen argiak areto-foballean

Gipuzkoako ligako kadete mailan Mollarriri 10-4 irabazita eta infantiletan Orixe B-ri 0-12, Debabarreneko Sukia taldeko ordezkariak erraz irabazi zituzten asteburuko partiduak. Ez zuen zorte bera izan infantil mailako Debabarrenak, Goierriekin 9-1 galdu zuelako, partidura atezain barik aurkeztu ondoren.

Bestalde, 2. B mailako bigarren

multzoko partiduan, Concepto Egile talde nagusiak 0-2 irabazi zuen San Juan nafarren kantuan eta, emaitza horrekin, Elgoibarren jasandako 2-3koa irauli eta average alde izatea lortu zuten. Alexen eta Rafaren golekin, taldea sailkapeneko bigarren postura igo da, Pinseque liderrarengandik bi puntura. Etzi, 12.30etan, Jakako Estanco Martin hartuko du Olaizagan.



## Urbateko igerilari txikienak Azkoitian

Urbat-Urkotronik taldeko igerilari gazteenak Zehaztasun Ligako 2. jardunaldia jokatu zuten aurreko zapatuan Azkoitian. Taldeko hogeita hamar igerilari hartu zuten parte benjamin (50 eta 100 libreak eta taldekako erreleboak) eta alebin (50 edo 100 bizkar erara, 200 libreak eta 4x50 tximeletako erreleboak) mailakotzat antolatutako ligan. Hurrengo jardunaldia otsailean izango dute.



## Erasoko puntu bonusa ere eskuratu zuen Eibar Rugby Taldeak Bilbaoren aurrean

Ibon Ganzarainen mutilek ondo aprobetxatu zuten sailkapeneko azkenaren aurka jokatzen zutela eta, irabazteagatik lortutako lau puntuez gain, puntu bonusa ere lortu zuten lau entsegu baino gehiago gauzatu zutelako. Bigarren itzuliko lehen partidu horretan, Gaizka Arrizabalagak bi zutoinen artean egindako jaurtiketa guztiak gauzatu zituen. Liga amaitzeko ia itzuli osoa gertzen bada ere, zaila izango dute eibartarrek igoerako play-offean sartzea, Bera Berak eta Uribealdeak oso sendo dihardutelako.

Bestalde, 14 urtetik beherako Gipuzkoako ligako partiduan, eibartarrek 36-12 galdu zuten Zarautzekin, batez ere aurkariak handiagoak zirelako. Txarrena Sanchez aurrelariaren kapitainaren eta Iñaki "Ostras" pilieraren lesioak izan ziren.



*Eibartarrek jantzi berriak estreinatu zuten Unben Bilbao R.T.-ren aurka jokatutako neurketan.*

## Segurtasunerako katea Urkon

Aurreko astean Eibarko Klub Deportiboko mendi taldeko boskote batek (Andoni Zendoia eta Etor semea, Julian Etxeberria, Angel Treviño eta Periko Iriondo) 20 bat metroko katea ipini zuten Urkoko Elorreta inguruko sa-

kanaren bidea mendizaleentzat seguruago egiteko. "Pauso horretan dagoen labain egiteko arriskua saihestea" nahi izan dute horrela. Bestalde, 40 lagun inguru animatu ziren 2014ko lehenengo irteeran, Irisarritik Donibane Garaziraino eraman zien etapan, tartean Arradoi mendira igota. Oso giro ona izan zuten 17 bat kilometroko ibilbidean.



*Deporrekoak Urkon ipinitako kateaz baliatzen.*

## Eibar Eskubaloiairen indar erakustaldia Ipuruan

Egia Ur Zaleak-eko donostiarekin aukera txikiena ere ez zien laga Somos Eibar Eskubaloiairen joko sendoak eta, Ipuruan hirugarren sailkatuari hamar golangatik irabazi ondoren, eibartarrek gero eta liderrago dira. Gainera, gero eta gertuago dute igoera fasea jokatzea: multzoko lehenengo biek izango dute horretarako eskubidea eta 3.a zazpi puntura dute Fernandoren mutilek. Aipatutako partiduan bikain jardun zuten atezain biek -Ander

San Miguelek eta Igor Moyuak eta zorrotz ibili ziren bai Garretxana eta baita San Martin ere. Bihar Urdanetaren kantuan jokatuko dute Somos Eibar eskubaloioek.

Harrobiari dagokionez, lau garaipen eta hiru berdinketa eman ziren azken jardunaldian. Bihar partidu garrantzitsua jokatuko da Ipuruan: Gipuzkoako txapelketako azken fasean den jubenil mutilen taldeak sailkapenean bi puntura duen Tolosa liderra hartuko du.



## Eibar Triatloi Taldeak 25 urte egiten ditu aurten

Gero eta taldekide gehiago dituen gure herriko triatloi ekipoak Delteco enpresaren babesarekin jarraituko du denboraldi honetan ere. Taldeak mende laurdena beteko du aurten eta asteburu honetan hasiko du denboraldia Anson, neguko triatloiairen Espainiako Kopako lehen probarekin. Otsailan, bestalde, duatloi denboraldia hasiko da, apirilaren 27an Eibarko probarekin amaituko dena, maiatzean triatloiak hasi aurretik.

## berriak

### UDABERRI ASTELEMAN

Gaur, 19.15etan hasita, bi pilota partiduko jokatuko dira Astelena. Hasteko, alebin mailan, Deporreko Cerreño eta Camina Bergerandi eta Sanchez-en aurka. Jarraian, Arribillaga eta Unamunzagak Zizurkilgo Labaka eta Erasuni egingo diete aurre.

### XAKE JARDUNALDIA

Bihar, 16.00etan, Deporreko B taldeak Mutrikuko Txaturanga hartuko du, aurreko jardunaldian Billabonan berdindu eta gero. Maila goreneko taldeak Errenterian jokatuko du, Mundarro-Oreteraren aurka.

### MAINZ BUELTRAN

David Mainz iaz arte Eibar F.T.-n jokatuko zuen aurrelaria, Bolivian sei hilabete jokatuko ondoren, Eibarrera itzuliko da taldearen neguko lehen fitxaketa moduan. Diego Rivas atezaina, aldiz, taldetik irten eta Tenerifera doa.



## Lehiaketak eta ikastaroak Kulturalean

Arrate Kultur Elkarateak hainbat ikastaro eta lehiaketa antolatu ditu datozen asteetarako. Iaz ekindako biderei jarraituta, aurten bigarrenaz egingo da Lan Artistikoen Lehiaketa, martxoaren 8an gogoratzen den Emakume Langilearen Egunaren harira. Lehiaketan 16 urtetik gorako edozeinek har dezake parte, edozein teknika erabilia sortutako artelanen bat aurkeztuta. Hori bai, artelanez Emakumearen Egunaren esanahiarekin nolabaiteko lotura izan beharko dute. Irabazle bakarra egongo da eta 200 euro jasoko ditu. Bestalde, lehiaketara aurkeztutako lan guztiekin erakusketa egingo dute Topalekuan, martxoaren 7tik 16ra bitartean. Parte hartu

nahi duenak otsailaren 28a baino lehen aurkeztu beharko du lana Arrate Kultur Elkaratearen bulegoan (astelehenetik eguenera, 17.00-etatik 19.00etara).

Bestalde, aurten hamazazpigarrenez antolatu dute Eguen Zuri argazki lehiaketa. Argazkietarako gaia Aratostekak dira (ez dira zertan Eguen Zuri egunekoak edo Eibarko aratosteetan egindakoak izan) eta edozeinek har dezake parte, gehienez lau argazki aurkeztuta (koloretan nahiz zuri-beltzean), 40x50 zentimetroko passpartout-aren gainean (azken eguna martxoaren 4a izango da). Argazki onenak 160 euroko saria jasoko du, bigarrenak 100 eurokoa eta hirugarrenak 60 eurokoa.



Azken Eguen Zuriko sari banaketaren ekitaldiko irudia.

### Photoshop eta dantza

Martxoan (10, 12, 17 eta 19an) Jose Luis Irigoienek argazkilarientzat oinarritzko Photoshop ikastaroa emango du, 19.30etatik 21.30etara. Prezioa 30 eurokoa da (25 eurokoa Kultuko bazkideentzat) eta gehienez 16 lagun onartuko dituzte. Eta fandango eta arinarin ikastaroa martxoaren 4an hasi eta maiatzaren 20ra arte

emango dute, martitzenetan 19.00etatik 20.30etara Arrate Kultur Elkartean (1. solairuan). Prezioa 35 eurokoa da (30 eurokoa Kultuko bazkideentzat). Informazio gehiagorako zein ikastaroetan izena emateko zuzenean bulegora jo dezakezue edo, bestela, arratekultu@gmail.com helbidera idatzi edo 943202299 telefono zenbakira deitu.



## Euskararen mosaikoa sarean

Abenduaren 3an ospatutako Euskararen Nazioarteko Egunean, Eibarren 1.600 lagunetik gora animatu ziren udaletxera joan eta argazkia egitera, euskalgintzak "Ipini aurpegia euskarari" goiburuarekin egindako deialdiari erantzunda. Aurreikusita zegoen moduan, horiekin guztiekin mosaikoa osatu eta [www.eibarko-euskara.com](http://www.eibarko-euskara.com) web

gunean ikusgai ipini dute. Bertan, mosaikoaz gain, banan-banan egindako argazkiak ikusteko aukera dago. Bide batez, udaleko Euskara sailak euskararekin lotutako albisteak zuzenean e-postan jasotzeko aukera eskaintzen duela gogorazi nahi du. Interesa duenak euskara@eibar.net helbidera "eman alta" mezua bidali beharko du.

## Euskara, hiztegitxoak.eu-ko ardatz

Euskaltzaleen Topaguneak hiztegitxoak.eu webgunea sortu du eta, bertan, euskaratik 35 hizkuntzatarako noranzkoan, eta alderantziz, oinarritzko hiztegiak PDF formatuan eskuratzeko aukera eskaintzen dute. Ekimenarekin egunerokotasunean hizkuntza ezberdinetako hiztunen artean euskara "zubi hizkuntza" izatea bultzatu nahi dute.



## Instrumentuei buruzko tailerra

Aurreko barixakuan musika instrumentuak erosteko orduan kontuan hartu beharrekoak jardun zuen Aitor Sologaitoa musikari eta bildumagileak, Casanella Studiok antolatutako tailerrean. Gaiak erakarrira joan zirenek interes handiarekin jarraitu zituzten bere azalpen eta aholkuak.



## Zapatuko Ipuina bueltan

Bihar arratsaldeko 18.00-etan Maite Frankok eskainiko duen "Mundipurdikoko ipuinak" ipuin-kontalari saioarekin ekingo diote Zapatuko Ipuina programari Juan San Martin liburutegian. Betiko lez, sarrera dohainik izango da eta kontalariak eskainiko dituen ipuinak hiru urtetik gorako umeentzat pentsatuta daude. Antolatzaileren berbetan, "Mundipurdikoko ipuinak urrutiko kontuak, han-hemenkakoak, kontu argiak, kontu ilunak, kontu garbiak edota zikinak... dira. Bidaiatu dezagun munduan barrena ipuinez ipuin edo, aulkia ibiltzen den bezala,



ipurdiz ipurdi eta bizkarrez bizkar. Izan ere, batzuetan zenbat eta urrutiago joan, orduan eta hobeto ulertzen dugu herrian duguna eta, jakina, ezezaguna ere askoz hobeto hartu".



Hankamotzak bertso eskolakoek Akara girotu zuten barixakuan.  
LEIRE ITURBE



## Bertso saio arrakastatsua

Aurreko barixakuan Akara tabernara joandakoekin pozarren eman zuten afalostea, bertan jardun zuten bertsolarien saioari esker. Hankamotzak bertso eskolakoekin batera anto-

latutako saioan Jokin Bergara, Jon Mikel Mujika, Aimar Goenaga, Manu Goigana eta Nerea Ibarzabal bertsolariek hartu zuten parte, Ion Martinez gai-jartzailearen aginduetara.

## laburrak



### ANTZERKIA COLISEOAN

Gaur 20.30etan "Terapiak" antzezlan (euskaraz) eskainiko dute Vaiven eta La Pavana konpainiek Coliseoan. Dorleta Urretabizkaia, Mikel Losada, Kepa Errasti, Ana Pimenta, Ane Gabarain, Mikel Laskurain eta Asier Oruesagasti aktoreek jardungo dute taula gainean, Rafael Calatayud-ek zuzenduta. Sarrerak 10 euro balio du. Aldez aurretik erosi ez duenak gaur 19.30etatik aurrera bertan erosteko aukera izango du.

### CIELITOREN KONTZERTUA

Eibarko Musika Bandak domekan kontzertua eskainiko du 12.30etan Coliseo antzokian. Carlos Sanchez-Barbak zuzenduko duen emanaldian honako egitarauari jarraituko diote: "Cielo andaluz" (pasodoblea, P. Markina), "El principe Igor" (gerradantzak, A. Borodin), "Aires Vascos n°1" (rapsodia, J. Franco), "La del soto del parral" (fantasia, Soutullo eta Vert) eta "Cabaret" (aukeraketa, J. Kander).

### ZAPATUKO TAILERRAK

Udalak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren barruan antolatutako Zapatuetako Tailerretan 140 hurrek hartuko dute parte 2014ko lehen hiruhilabetekoan. Datorren astean, hilaren 25ean hasi eta martxoaren 8an amaituko dira antolatutako hamaika tailerrek eta sukaldaritzaren inguruko bereziki arrakastatsua izan da.



## Jose Enrique Gonzalez Orueta

Urtarrilaren 15ean hil zen, 75 urterekin

**FAMILIAREN IZENEAN, ESKERRIK BEROENA**  
gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi  
eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.



### ○ Gipuzkoa lurralde euskalduna da

2011ko zentsuaren Eustaten azterketaren eta Eusko Jaurlaritzaren V. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, Gipuzkoa lurralde euskalduna da: biztanleen %53 euskaldun elebiduna da eta beste %23 euskaraz ulertzeko gai; gainera, 2 eta 30 urte bitartekoen %77 euskaldun elebiduna da. Gipuzkoan kalean neurtutako elkartzeten %33 euskaraz izan dira. Soziolinguistika Klusterraren arabera. Horrez gain, Gipuzkoako herri gehienak euskaraz bizi dira: biztanleen gehiengoa euskal elebiduna duten 56 herri eta eskualde ugari ditu eta heritamen erdia baino gehiago euskaldunak diren 82 herri.

## euskararen txokoa

### ○ Euskaltzaindiaren inguruan

Euskaltzaindia euskara zaindu, aztertu, zabaltu, batu eta hobetzea helburu duen hizkuntza akademia ofiziala da. Gaur egun 29 euskaltzain osoz osatua. Zuzenbidez, Hego Euskal Herriko lau aldundiek sortu zuten, Eusko Ikaskuntzarekin batera; UPN-ren Nafarroako Gobernuak diru laguntzak ukatu zizkion. Egoitza Bilboko Zazpikaleetan du. Bere goiburua *Ekin eta jarrai* da eta honako batzordeak ditu: Ahoskera, Argitalpena, Azkue Liburutegia, Corpusa, Dialektologia-Atlasgintza, Euskara Batua, Gramatika, Hiztegi-gintza, Lege-ekonomia, Literatura, Onomastika eta Sustapena.

## Euskal Herriko Mus Txapelketa

**Aurten ere Euskal Herriko V. Mus txapelketaren kanporaketa Eibarren jokatu da**, urtarrilaren 26an (domeka) Depor tabernan, 16.00etan hasita. Bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu eta parte hartzen duten bikote guztiek oroigarri bana jasoko dute. Eibarko kanporaketan sailkatzea lortzen dutenek Gipuzkoako kanporaketan jardungo dute (Orion otsailaren 14, 15 edo 16an). Euskal Herriko finala, berriz, martxoaren 8an Heletan (Behe Nafarroan) jokatu da. Izena emateko Deporera joan behar da (horretarako epea hilaren 26ko 15.00etan itxiko da). Informazio gehiagorako [www.euskalherrikomusfederazioa.org](http://www.euskalherrikomusfederazioa.org) webgunea kontsultatu daiteke.

## Ustekabeoak bikain Donostian

Ustekabe fanfarreak aurten Donostiako danborradan eskainitako saioa benetan arrakastatsua izan zen. Argazkian ikusten dituzuen musikari gazteek ordu txikitan eta euripean jardun zuten donostiarren jai egun handian, erdialdeko Antonio Bar konpainiakoeekin batera. Baina euren ahalegina ez zen alperrikakoa izan, emanaldiaren oihartzunak hurrengo egunean El Diario Vasco-ko azaleko protagonista izatera eraman zituen-eta.



*Eibarren sailkatzen direnek Orion izango dute hurrengo kanporaketa.*  
LEIRE ITURBE



## Danborradaren kontzertu bizi-bizia

San Sebastian egunaren harira urtero egiten duten lez, aurten ere danborradaren kontzertua eskaini dute Usartzatxistulari taldekoek, Eibarko Danborradako hainbat ordezkariaren laguntzarekin. Aurten, gainera, berritasuna

gehitu diote: izan ere, aurreko domekan Coliseoan eskainitako emanaldian Molto Vivace metal boskoteak ere hartu zuen parte. Formato berriak eskatutako piezen moldaketa guztiak Iñaki Urkizuk egin ditu.



LEIRE ITURBE



# laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, IKER, mutil haundi, astelehenian bederatzi urte egingo dozuz-eta. Muxu bat aitaxo, amatxo eta Noraren partez.



Zorionak, NORA, zure laugarren urtian. Amama Marian eta etxeko guztien partetik.



Zorionak, NAHIA, atzo bi urte egin zenduaz-eta: Muxu haundi bat guraso eta famelixaren partez.




Zorionak, ANE, aurreko domekan zortzi urte bete zenduazelako. Laztan haundi bat famelixaren eta, batez be, Iraiaren partez.



Zorionak, IKER, martitzenian 11 urte egingo dozuz-eta. Ondo pasa, txapeldun! Muxu asko famelixaren partez.



Zorionak, JURGEN, haraiñegun bi urte egin zenduaz-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partetik.



Zorionak, LUKA, hillaren 20xan bi urte bete zenduaz-eta. Patxo haundi bat, mutil haundi.



Zorionak, ANE Sologaistua, printzesa, bost urte egitterakuan. Muxu haundi bat etxeko guztien partetik.



Zorionak, ION, atzo urtiak bete zenduaz-eta. Ondo ospatu! Laztan haundi bat lagun guztien partez.



Zorionak gure etxeko printzesak diran HAIIZA (astelehenian lau urte egingo dozuz) eta PAULE (hillaren 12xan hiru urte egin zenduaz-eta). Aitxitxa eta amamaren partez.



Zorionak, JORGE (hillaren 8xan) eta MARIA (bixar, 25ian), urtiak bete dozuez-eta. Muxu haundi bat etxekuen eta, batez be, ama eta Gorkaren partez.



Zorionak, PABEN (hillaren 17xan 32 urte egin dozuz) eta JANA (hillaren 16xan sei urte). Famelixa guztiaren eta, batez be, Ixoneren partez.



Zorionak, JULEN (bixar, 25ian) eta MIKEL (hillaren 14an), zuen 12. urtebetetzian. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, NORA (sei urte egin zenduaz-eta martitzenian) eta MAIALEN (bi bete zenduaz-eta domekan). Patxo haundi-haundi bat famelixaren partez!!!

## zineaColiseoan

**(1 ARETOAN)**  
**25ean: 17.00, 19.45, 22.30**  
**26an: 17.00, 20.00**  
**27an: 20.30**

**"Vivir es facil con los ojos..."**  
 Zuzendaria: David Trueba



**(2 ARETOAN)**  
**25ean: 17.00, 22.30**  
**26an: 16.30, 20.00**  
**27an: 20.30**

**"La vida de Adèle"**  
 Zuzendaria: Abdel. Kechiche



**(ANTZOKIAN)**  
**25ean: 19.45, 22.30**  
**26an: 20.00**  
**27an: 20.30**

**"La ladrona de libros"**  
 Zuzendaria: Brian Percival



**(ANTZOKIAN)**  
**25ean: 17.00**  
**26an: 17.00**

**"Rodencia y el diente..."**  
 Zuzendaria: David Bisbano



## BARIXAKUA 24

### GAZTELEKUA

**16.30.** Xake txapelketa. Indianokua gaztelekuan.

### TXOTX-AFARIA

**19.00.** Kalejira trikitalariek, Eibarko erdialdean.

**20.00.** Sagardo-dastaketa (Saizar sagardotegia). Omenaldi-afaria eta Trio Medianoche eta Voces y Cuerdas. Iruki sagardotegian.

### ANTZERKIA

**20.30.** "Terapiak" (euskaraz). Vaiven Producciones & La Pavana. 10 euro. Coliseoan.

## ZAPATUA 25

### HAUR PARKEA

**11.00/14.00 eta 17.00/20.30.** Bi eta hamabi urte bitarteko umeentzat. Astelena frontoian.

### GAZTELEKUA

**17.00.** Play/Wii. Indianokua gaztelekuan.

### UMEENDAKO ZINEA

**17.30.** "Aviones" (Disney) filma. El Corte Inglesean (ekitaldi aretoan).

### LAGUN TALDEA

**17.30.** "¿Quién ha sido?" ikuskizuna. Sarrera: Euro bi. Hezkuntza Esparruan.

### KIROLA FAMILIAN

**17.30-19.30.** Bi eta bost urte bitarteko haurrek eta gurasoek elkarrekin jolasteko gunea. Ipurua Kiroldegian.

### ZAPATUKO IPUINA

**18.00.** "Mundipurdiko ipuinak". Maite Franko. Doan. Liburutegian.

### KONTZERTUA

**23.00.** King Bee (blues, R&B) taldea. Ez Dok tabernan (T. Etxebarria, 18).

## DOMEKA 26

### GAZTELEKUA

**17.00.** Film emanaldia. Indianokua gaztelekuan.

### KIROLA FAMILIAN

**17.30-19.30.** Bi eta bost urte bitarteko haurrek eta gurasoek elkarrekin jolasteko gunea. Ipurua Kiroldegian.

## ASTELEHENA 27

### IKASTEN

**10.00.** "Mirando al cielo" astronomia topaketa. Beheko Tokian.

## MARTITZENA 28

### IKASTEN

**11.00.** "De los clásicos y las obras maestras a la expresión artística contemporánea, ¿un acercamiento pedagógico?" hitzaldia. Dinah Torrevejano. Armeria Eskolan.

### IKASTEN

**17.00 eta 18.30.** Joskintza tailerra. Portalean.

## EGUAZTENA 29

### IKASTEN

**09.10.** Mendi-ibilaldia: Donostia-San Markoseko gotorlekua-Erretereria (irteera Ardantzatik; Estaziñotik, 09.12etan).

### EIBARKO KANTUZALEAK

**19.00.** Entsegua. San Andres elizako lokaletan.

## EGUENA 30

### TAILERRA

**10.00.** "Elkarrizketarako prestatu zaitez" (lan bila dabilzatenendako talde-tailerra, doan). Portalean.

### IKASTEN

**10.00.** "De los clásicos y las obras maestras a la expresión artística contemporánea, ¿un acercamiento pedagógico?" hitzaldia. Dinah Torrevejano. Armeria Eskolan.

### BERRERIBAR KULTURALA

**18.30.** Proiekzioa: "Com un gegant invisible" (dokumentala) eta "Kea" (laburmetraia). "Lanaren aztarna ondare denean" hitzaldia, Tximini kolektiboaren eskutik. Portalean (areto nagusian).

### KALEETAN KANTUZ

**19.30.** Entsegua. San Andres elizako lokaletan.

## ikastaroak

✓ **Photoshop argazkilarientzat (oinarrizkoa)**  
**Noiz:** Martxoaren 10, 12, 17 eta 19an. 19.30etatik 21.30etara.  
**Izen-ematea:** Arrate Kultur Elkarte, astelehenetik eguenera 17.00-19.00, 943-202299 edo arratekultu@gmail.com (30 euro; 25 euro Kultuko bazkideentzat). Plaza mugatuak.

✓ **Fandango eta arin-arin**  
**Noiz:** Martxoaren 4tik maiatzaren 20ra. Martitzenero, 19.00etatik 20.30etara, Kultun, 1. solairuan.  
**Izen-ematea:** Arrate Kultur Elkarte, astelehenetik eguenera 17.00-19.00, 943-202299 edo arratekultu@gmail.com (35 euro; 30 euro Kultuko bazkideentzat).

✓ **Ur Sorospen ikastaroa**  
**Noiz:** Otsailaren 8tik martxoaren 16ra, zapatu eta domeketan, 09.30etatik 16.00etara (60 ordu). Ipurua kiroldegiko igerilekuan.  
**Izen-ematea:** Eibar-Ermuko Gurutze Gorria (Gipuzkoa etorbidean, autopistako peajea) eta 943-176248.

## HOROSKOPOA

### ARIES

Badakizu legez kanpoko gauzak egitean zer jartzen den jokoan. Gatazka etikoa izango duzu eta erabakia ez da samurra.

### TAURUS

Abesti bat sartuko zaizu buruan, egunetan ezingo duzuna kendu. Ohartu zara esaten duenarekin? Emaizkiozu buelta batzuk.

### GEMINI

Zu bai erromantikoa: olerkiak, bonboiak... nola gustatzen zaizkizun! Parisen jaioa izan bazina ere... Hori da dagokizuna.

### CANCER

Zureari tinko eusten ez badiozu, nork egingo du? Zertarako etsi, gauzak horrela direla uste baduzu? Arrazoia zurea da.

### LEO

Negoio garrantzitsua izango duzu esku artean. Azkenean, baina, buruhauste gehiegi inongo etekinik ez ateratzeko.

### VIRGO

Argazkietan ateratzea hain gogoko duzu, modelo izateko proposamena jasotzeraino. Lagun horri ezingo diozu ezetzki esan.

### LIBRA

Grabagailua eraman beharko duzu soinean gauzak ez ahazteko. Zergatik ez diozu buruari aktibitate pixka bat ematen?

### SCORPIUS

Lotura berezia duzu soilik bistaz ezagutu eta nolabaiteko bizipoza sortzen dizun horrekin. Hurbildu zaitez berarengana.

### SAGITTARIUS

Hasieran zertxobait kostatuko bazaizu ere, jarraitu zabilzatan horretan. Iluzioz egiten baduzu, emaitzak lortuko dituzu.

### CAPRICORNIUS

Aste polita izango da zuretzat, arazorik gabea eta berri onez josia. Gauza bat aurkituko duzu, zoriotsu egingo dizuna.


### AQUARIUS

Errealistagoa izan beharko zinateke eta ez eskatu gerta ezin daitekeena. Hanka lurrean behar dira momentu oro, ziur!

### PISCIS

Jauzi handia emango duzu bizitzan. Egun batetik bestera erabat aldatuko dira gauzak: atzoko zuria beltz-beltza da gaur.





## erakusketak

### ✓ Urtarrilaren 31ra arte

**ESTHER GALARZAREN** akuarela erakusketa. *El Ambigu tabernan.*

**FERNANDO RETOLAZAREN** "Patagonia" argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*

**JESUS BOTAROREN** argazki erakusketa. *Klub Deportiboan.*

### ✓ Otsailaren 10era arte

**MYCHEL TYTGAT-EN** "20 obras 40 años" margo, akuarela eta marrazki erakusketa. *Topalekuan.*

### ✓ Otsailaren 16ra arte

**BEART** Bergarako Arte Elkartekoen erakusketa. *Portalean.*

**PATRIK GRIJALVO MILLOIS-EN** argazki-collageak. *Portalean.*

## farmaziak

### ✓ barixakua 24

EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

### ✓ zapatua 25

EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

### ✓ domeka 26

EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

### ✓ astelehena 27

EGUNEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)

### ✓ martitzena 28

EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

### ✓ eguaztena 29

EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

### ✓ eguena 30

EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

### ✓ barixakua 31

EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)

## 2014 urte osorako

### GAUEZ

**Azkue** (T. Etxebarria, 4)

## hildakoak

- Cecilio Molina Colina. 74 urte. 2014-I-16.
- Charo Yarnoz Divasson. 79 urte. 2014-I-16.
- Soledad Bareña Aranberri. 2014-I-18.
- Bernardo Iriarte Sasiain. 53 urte. 2014-I-18.
- Piedad Muniozguren Muguruza. 88 urte. 2014-I-19.
- Elvira Isla Soria. 79 urte. 2014-I-19.
- M<sup>a</sup> Asuncion Delgado Benito. 93 urte. 2014-I-19.

## jaiotakoak

- Paul Atxa Gisasola. 2014-I-4.
- Safe Akhrif. 2014-I-6.
- Lucas Souto Nazaret. 2014-I-8.
- Ainhoa Arriola Lizarriturri. 2014-I-10.
- Fabiola Garcia Ruiz de Arkaute. 2014-I-13.
- Libe Ballona Salsamendi. 2014-I-14.
- Xabier Gomez Silvares. 2014-I-15.
- Malen Gil Urigoitia. 2014-I-15.

2	7		5	3			8
			9	2			
6	5						1
5				9		4	
	3						7
		7		1			5
1						3	7
				5	8		
	8			7	2		4
							6

## SUDOKUA

3	1	7	5	8	2	6	4	9
4	6	5	1	7	9	8	2	3
2	8	9	4	6	3	1	5	7
5	4	1	3	2	6	7	9	8
8	3	2	7	9	5	4	6	1
7	9	6	8	4	1	2	3	5
1	2	8	9	3	4	5	7	6
9	5	4	6	1	7	3	8	2
6	7	3	2	5	8	9	1	4

AURREKOEN EMAITZA

## telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak ..	943 46 46 22
Gurutze Gorria...	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekoa.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Pesa.....	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.....	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen ..	650 26 59 63

## autobus ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.50etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.50etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.50, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.55. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 13.50etara ordu, 15.00, 15.50etatik 20.30etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.50etatik 20.50etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.50etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

**EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40-etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40-etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu.

**EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.50etatik 20.50etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

**EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.50. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

**EIBAR-ARRATE.** Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 15.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

**EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

**EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.55etara 20 minutu eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50-etatik 21.10etara 20 minutu eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

**EIBAR-LOIU.** Egutegia: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egutegia: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

## tren ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Egutegia: 08.13etatik 22.13etara ordu. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egutegia: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

**EIBAR-BILBO.** Egutegia: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egutegia: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

– Pisua salgai Eibarko erdialdean. 3 logela, 2 komun, egongela, sukalde eta trasteroa. Ilogailua. Guztiz berriztuta eta argitsua. 130 m<sup>2</sup>. Tel. 626-203838.

– Pisua salgai Soroluzen. 2 logela, egongela, sukalde eta komun. 60 m<sup>2</sup>. Berogailu urdina, berriztuta. Teilatu berria. Dena kanpora begira. Bizitzera sartzeko moduan. 69.000 euro. Deitu 18.30etatik aurrera. Tel. 617-207672.

### 1.2. Errentan

– Esteponan pisua alokagai martxoan, apirilean eta maiatzean. 3 logela, 2 bainugela eta egongela. Portu, hondartzeta eta herritik gertu. Itsasora begira. Tel. 943-201294 eta 657-799311.

– Pisua alokagai Jardinetan kalean. 3 logela eta egongela. Tel. 690-018786.

– 3 logelako pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 632-337083.

– Pisu bi alokagai Arrate-Biden: 3 gelakoa bata eta 2koa bestea. Tel. 645-728317 eta 943-201294.

– Pisua errentan hartuko nuke Eibarren. Presa dut. Hilean 450-500 euro ordainduko nuke. Tel. 632-569245 eta 673-271449.

– Pisua errentan hartuko nuke Eibarren. Merke. Tel. 632-192408.

## 2. Motorra

### 2.1. Salgai

– Citroen Xsara salgai. Diesel. 90 cv. Garajea gordeta beti. Egoera onean. Prezio interesgarria. Tel. 656-733131.

– Mercedes Benz E-320 CDI autoa salgai. 224 cv. 117.500 km. 2007. urtekoa. Egoera onean. Tel. 630-975501.

## 3. Lokalak

### 3.2. Errentan

– Lokala alokagai Otaola Etorbidean, kuadrilendako egokia. 20 m<sup>2</sup>. Tel. 681-303507. Oier.

– Garaje itxia alokagai Abontzan. Auto handi baterako. Tel. 617-688311. Elena.

– Garaje itxia alokagai Txomon. Auto handi baterako. Tel. 617-688311. Elena.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:  
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.  
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

– Neska eskaintzen da etxeak eta pegorak garbitzeko. Erreferentziak. Tel. 608-820954.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 636-419814 eta 631-282203.

– Neska eskaintzen da goizez nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 652-532589.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 600-332954.

– Mutila eskaintzen da iturgintza-lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 685-611778.

– Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 638-338816.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 654-938957.

– Emakume euskalduna eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 943-788198.

– Emakumea eskaintzen da gauzez nagusiak zaintzeko. Tel. 628-529252.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. 20 urteko esperientzia. Orduka zein jornada osoz. Tel. 680-463892.

– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pegorak garbitzeko, sukaldean jarduteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 680-526228.

– Gizonezkoa eskaintzen da igeltsero, pintore eta lorazain jarduteko. Tel. 628-818558.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 627-784812.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Externa eta orduka. Tel. 680-121252.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 697-308051.

– Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Arratsaldez eta gauzez. Tel. 628-223441.

– Gizonezkoa eskaintzen da edozein gauzarako. Esperientzia garbiketara eta atezaintzan. Orgatila jasotzailerako karneta. Tel. 616-370323.

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-549224.

– Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta ortuan lan egiteko. Tel. 632-987144.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxean zein ospitalean. Tel. 657-239953.

– Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Externa. Tel. 663-860460.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxea garbitzeko. Esperientzia. Tel. 675-358119.

– Mutila eskaintzen da taberna lan egiteko eta pegorak eta garajeak garbitzeko. Esperientzia taberna eta jate-txeetan. Tel. 692-332871.

– Behargina eskaintzen da pegorak edo bulegoak garbitzeko eta nagusiak zaintzeko. Arratsaldez. Tel. 620-757528. Arrate.

– Mutila eskaintzen da pintore jarduteko. Tel. 617-694603. Manuel.

– Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta plantatzeko. Tel. 632-337083.

– Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko, nagusiak zaintzeko eta kamarera jarduteko. Tel. 608-928766.

– Mutila eskaintzen da banatzaile jarduteko edo biltegian lan egiteko. Tel. 632-210608.

– Mutila eskaintzen da soldatzaile edo sukaldari laguntzaile moduan jarduteko. Tel. 609-601500. Carlos.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 602-865726.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Edozein ordutegitan. Tel. 636-419814.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 606-354982.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Edozein ordutegi. Tel. 602-828336.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu edo laguntzeko arratsaldez. Tel. 636-841158.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 653-700969.

– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta beste lanetarako. Tel. 686-077316.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko asteburuetan. Tel. 646-821678.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. Tel. 636-976515.

– Neska euskalduna eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 617-888142.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 617-280304.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 626-197217.

– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko asteburuetan. Tel. 617-571210.

### 4.2. Langile bila

– Garbitzailea eta sukaldaria behar dira jate-txe baterako, asteburuetan lan egiteko. Bidali curriculum-a eta argazkia. Eibarko 46. postakutxa.

– Ileapaintzailea behar da ileapaindegi batean. Esperientziarekin. Tel. 943-254776.

– Emakume euskalduna behar da nagusia zaindu eta garbiketarako. Tel. 943-207149.

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

– Klase partikularrak ematen dira. DBH, Batxilergoa, Heziketa Zikloak eta Unibertsitateko. Tel. 669-622642. Mireia.

– Neska euskalduna eskaintzen da klaseak emateko. DBH eta Batxilergoko ikasgai zientifiko-teknikoak ematen esperientzia. Bakarka edo talde txikiak. Tel. 615-704540.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

– Bigarren eskuko soinu txikia erosi nahi dut. Tel. 689-207241. Carmen.

– Lehen jaunartzerako marinel trajea salgai. Beige kolorekoa. 14 tailakoa. Ia berria. Prezioa adosteko. Tel. 630-686469.

– Hiru plazako sofa salgai. 2,00x0,85 metro. Salmoi kolorekoa, bi urte erabiltuta. 100 euro. Tel. 660-805301. Miriam.

### 6.4. Bestelakoak

– Binilozko diskoak, singleak eta LP-ak erosten ditut. Tel. 943-572057.

– Asteburuetan belaontzian nabigatzeko taldea osatzen ari gara. Tel. 605-751127.



...eta kitto!-ren  
**itzulpen**  
itzu itzu itzu  
**zerbitzua**



**ERA GUZTIETAKO  
TESTUAK  
ITZULTZEN  
DITUGU,  
euskaratik  
gaztelerara,  
gazteleratik  
euskarara,  
eta ingelesetik  
euskarara.**

- Urte askotako  
**ESPERIENTZIA** dugu.



- Bezeroaren  
beharretara  
**EGOKITU**ko gara.

[elkartea@etakitto.com](mailto:elkartea@etakitto.com)

**Eskela,  
urteurren meza  
edo eskertzarik  
jarri nahi baduzu**

**...eta kitto! aldizkarian  
duzu aukera (943 20 67 76)**



# Zumaian bizi

RESIDENCIAL

# Ortiz

BIZIGUNEA

 facebook.com/inmoloiola

aukeratu etxebizitarik egokiena



**ETXEBIZITZAK 170.000 €**  
-tik aurrera



inmo  
oiola

  
ALTUNA Y URÍA S.A.

# 606 957 532

[www.vivirenzumaia.com](http://www.vivirenzumaia.com) / [www.zumaianbizi.com](http://www.zumaianbizi.com)